

1/1992 Foru Dekretu Arau-Emailea, martxoaren 10ekoa, abeltzantza lokabeari dagozkion tarifa eta jarraipideei buruzkoa (BAO Martxoaren 30ekoa)

Artikulu bakarra.

Abeltzantza lokabeari doazkion Ekonomi Ihardueren gaineko Zergako tarifak onetsi dira, honako foru dekretu arauemailearen I. eranskinaren barruan sartu eta apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemailearen I. eranskinean bildutako aipatu zergako tarifetako 1go. sailatalean integratzen direnak.

Halaber, honako foru dekretu arauemailearen II. eranskinaren barruan sartzen den jarraipidea onetsi da, berorrek eta 1/1991 Foru Dekretu Arauemailean jasotakoak aipatu tarifen aplikazioa araupetuko dutelarik.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.

Honako foru dekretu arauemaile hau Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratuko den egun berean jarriko da indarrean.

Bigarrena.

Eskuespena emana zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari honako foru dekretu arauemaile hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

I. ERANSKINA TARIFAK

1. SAILA

ENPRESA IHARDUERAK: ABELTZANTZA, MEAGINTZA, INDUSTRIALAK, MERKATARITZAZKOAK ETA ZERBITZUGINTZA

0. ZATIKETA. ABELTZANTZA LOKABEA

01. ELKARTZEA. betabereen ustiapena.

011. taldea. Betabereen ustiapen estentsiboa

Kuota: 0,997680 euro abelburu bakoitzeko.

012. taldea. Esnetarako betabereen ustiapen sarria.

Kuota: 1,989350 euro abelburu bakoitzeko.

013. taldea. Gizentzeko betabereen ustiapen sarria.

Kuota: 0,997680 euro abelburu bakoitzeko.

01. ELKARTZE OSOARENTZAKO OHARRA: Ustiatégian jaiotako abereak, sei hilabete bete arte, ez dira elkartze honetako taldeetan konputatuko, eta haiengandiko etekina ugalketarako azindari esleitutakoaren barruan sartutzat hartuko da.

02. ELKARTZEA. Ardi- eta ahuntz-abereen ustiapena.

021. taldea. Ardi-abereen ustiapen estentsiboa

Kuota: 0,258435 euro abelburu bakoitzeko.

022. taldea. Hazkuntzarako ardi-abereen ustiapen sarria.

Kuota: 0,324547 euro ugalketarako abelburu bakoitzeko.

023. taldea. Gizentzeko ardi-abereen ustiapen sarria.

Kuota: 0,162273 euro abelburu bakoitzeko.

024. taldea. Ahuntz-abereen ustiapena.

Kuota: 0,222374 euro abelburu bakoitzeko .

02. ELKARTZE OSOARENTZAKO OHARRA: Ustiatégian jaiotako abereak, hiru hilabete bete arte, ez dira elkartze honetako taldeetan konputatuko, eta haiengandiko etekina ugalketarako azindari esleitutakoaren barruan sartutzat hartuko da.

03. ELKARTZEA. Txerri-abereen ustiapena.

031. taldea. Txerri-abereen ustiapen estentsiboa.

Kuota: 0,294496 euro abelburu bakoitzeko.

032. taldea. Hazkuntzarako txerri-abereen ustiapen sarria.

Kuota: 0,859447 euro ugalketarako abelburu bakoitzeko.

033. taldea. Gizentzeko txerri-abereen ustiapen sarria.

Kuota: 0,198334 euro abelburu bakoitzeko.

03. ELKARTZE OSOARENTZAKO OHARRA: Ustiatégian jaiotako abereak, lau hilabete bete arte, ez dira elkartze honetako taldeetan konputatuko, eta haiengandiko etekina ugalketarako azindari esleitutakoaren barruan sartutzat hartuko da.

04. ELKARTZEA. Hegaztizantza.

041. taldea. Erruteko hegaztizantza:

041.1. epigrafea. Errun eta ugalketarakoak.

Kuota: 0,030051 euro buru bakoitzeko.

041.2. epigrafea. Lau hilabetetik gorako araultze-erruleak.

Kuota: 0,018030 euro buru bakoitzeko.

041. TALDEARENTZAKO OHARRAK.

1. Lau hilabetera arteko erruteko txitoak ez dira konputatuko.

2. Talde honetako edozein epigrafetako kuoten ordainketak txotoen inkubazio eta hazkuntza edo berrazkuntzarako ahalmena emango du, beti ere subjektu pasibo beraren erruleen ustiategietara destinatzen direnean.

042. taldea. Okelatarako hegatzizantza:

042.1. epigrafea. Okela eta ugalketarakoak.

Kuota: 0,030051 euro buru bakoitzeko.

042.2. epigrafea. Okelatarako oilasko eta ahateak.

Kuota: 0,012020 euro buru bakoitzeko.

042.3. epigrafea. Ugalketarako indioilo-oilar, faisai eta palmipedoak.

Kuota: 0,018030 euro buru bakoitzeko.

042.4. epigrafea. Okelatarako indioilo-oilar, faisai eta palmipedoak.

Kuota: 0,024040 euro buru bakoitzeko.

042.5. epigrafea. Okelatarako galeperrak.

Kuota: 0,012020 euro buru bakoitzeko.

Oharra: Talde honetako edozein epigrafetako kuoten ordainketak txitatzeke ahalmena ematen du, baldin eta txitatzeke lortzen diren hegaztiak talde honen barruan sailkatzen diren subjektu pasibo beraren ustiategietarako badira.

05. ELKARTZEA. Untxizantza.

051. taldea. Untxizantza.

Kuota: 0,114192 euro ugalketarako buru bakoitzeko.

06. ELKARTZEA. Beste ataletan bildu ez diren abeltzantzako ustiapenak

061. taldea. Zaldi-, mando- eta asto-abereen ustiapena.

Kuota: 0,649093 euro abelburu bakoitzeko.

062. taldea. Erlazantza.

Kuota: 0,060101 euro erlauntza bakoitzeko.

069. taldea. Abeltzantzako beste zenbait ustiapen.

Kuota: 68,95 euro langile bakoitzeko.

OHARRA: Talde honek zatiketa honetan zehaztu ez diren abeltzantzako ustiapenak biltzen ditu, hala nola zetarrhazkuntzako ustiapenak, larrugintzarako animalien hazkuntza, ehizien hazkuntza hesi barruan, laborategiko animalien hazkuntza, marraskiloak, etab.

07. ELKARTZEA. Ustiapen mistoak

071. taldea. Ustiapen mistoak.

Kuota: aurreko elkartzeetako talde eta epigrafeetan aurrikusitakoaren arabera, burutzen diren iharduerei dagozkien kuota partzialak batzearen ondoriozko kopurua.

OHARRA: talde honetan, ustiategi berean zatiketa honetako 01.etik 06.erako elkartzeetan sailkatutako iharduera bat baino gehiago burutzen duten subjektu pasiboak sailkatzen dira.

0. ZATIKETA OSOARENTZAKO OHARRAK:

1. Zatiketa honetan sailkatu eta ustiategi berean burututako iharduerei dagozkien kuoten zenbateko osoa 38,440734 eurotik beherakoa denean, subjektu pasiboak zero kuotaren arabera ordainduko ditu tributuak.
2. Abeltzantzako iharduera "integratutako abeltzantza" izeneko erregimenean burutzen denean, kuota egokiak "abeltzain integratzaileak" edo aziendaren jabeak ordainduko ditu.
3. Zatiketa honen ondorioetarako, abereak elikatzeke belardi edo bazken aprobetxamendua gertatzen deneko lur esparrua osoosoan edo zati batez erabiliz burutzen den ustiapena hartuko da estentsibotzat.

II. ERANSKINA JARRAIPIDEA

1. erregela. Tarifen edukina.

Aurreko I. eranskinean jasotako tarifek honako hauek biltzen dituzte:

- a) Abeltzantza lokabeko iharduereen deskribapen eta edukina.
- b) Abeltzantza lokabeko iharduera bakoitzari dagokion kuota, Tarifetan eta Zergako Jarraipidean araupetutako tributu elementu egokiaren aplikazioaren bitartez zehaztuta.

2. erregela. Kargatutako iharduereen burutzapena.

Tarifetan zehaztu eta abeltzantza lokabearen barruan sartutako edozein iharduerearen burutzapen soilak, edo haietan zehaztu ez den eta izaera berekoa den beste edozein iharduerearen burutzapen soilak, alta adierazpen egokia aurkeztu eta zerga honen zioz ordaindu beharra ekarriko du, Jarraipidean bestelakorik xedatu ezean.

3. erregela. Abeltzantza lokabearen kontzeptua.

1. Abeltzantza lokabetzat, Ekonomi Iharduereen gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Araueko 2.1. aurrikusitakoaren arabera enpresa iharduereak diren heinean, ondoko kasuotako baten batetan dauden zenbait abelbururen ustiapena xede duten iharduereak hartuko dira:
 - a) Abereen jabeak nekazaritza- edo baso-ustiapenik burutzen ez dueneko lurretan alatu edo elikatzea. Honi dagokionez, ondoko inguruabarretariko baten bat gertatzen denean, lurra abereen jabeak ustiatuta daudela ulertuko da:
 1. Abeltzaina katastroko titularra edo lurraren jabea denean.
 2. Haren kabuz edozein titulupean honako iharduereok burutzen dituenen: bazken ongarrizaketa, epaiteak, saralegintza, ziloraketa, enpakaketa, lugorria, uzta, inausketak, kimu-bazka, laharrean egitearen bidezko aprobetxamendua, etab., guzti horiek abereen elikagai nagusi diren sarale, lasto, zilo edo pentsuak lortzeko beharrezkoak.

- b) Landa finketatik kanpo gortaratua, gehien bat jabearen nekazaritza- edo baso-ustiategietan lortutako ekoizkinekin elikatzen diren abereak ez direlarik halakotzat hartuko, nahiz eta abeltzantzako instalazioak lurretatik kanpo kokatu.
 - c) Larraldatzezkoa edo mugapasazkoa, abereen jabeak ustiatutako lurretan lortutako bazka, zilo, sarale edo pentsuez batez ere elikatzen den azienda ez delarik halakotzat hartuko.
 - d) Hazten den finkatik kanpo ekoitziriko pentsuez batez ere elikatzen dena.
2. Aurreko atalean xedatutakoari dagokionez, azienda hazten deneko finkatik kanpo ekoitziriko pentsuekin batez ere elikatzen dela ulertuko da, haien proportzioa kilogramotan adierazitako sarale, lasto, zilo edo pentsuen kontsumo osoaren 100eko 50etik gorakoa denean.
 3. Edozein ordainkeraren pean, "abeltzain integratu" legez, gainontzekoen jabetzako abereak biltzen dituzten abeltzantzako ustiategien titularrek ez dute iharduera horren zioz zerga hau ordainduko, eta aipatu iharduera abeltzantza lotutzat hartuko da.

4. erregela. Ahalmenak.

1. Oro har, abeltzantza lokabeko iharduera bati dagokion kuotaren ordainketak soilik iharduera hori burutzeko ahalmena emango du, zerga hau araupetzen duen foru arauetan, tarifetan edo honako jarraipide honetan bestelakorik xedatu ezean.
2. Aurrekoa gorabehera, tarifen 1go. sailtateko 0. zatiketan sailkatutako abeltzantza lokabeko ihardueren burutzapenari dagozkion kuoten ordainketak handi eta txikizkako salmentarako ahalmena emango du, baita aipatu ihardueren ondorioz lortutako gai, ekoizkin, azpiekoizkin eta hondakinen esportaziorako ere.

Halaber, aurreko lerroaldeak aipatutako kuoten ordainketak, iharduera egokien garapenerako behar diren lehengaiak eskuratzeko ahalmena ematen du, bizkaitar herrialdearen barruan zein bertatik kanpo edo atzerrian, beti ere adierazitako lehengaiak ekoizpen prozesu propioaren barruan sartzen baldin badira.

Abeltzantza lokabereen burutzapenerako, hala nola erregela honetan araupetzen diren ahalmenen garapenerako, subjektu pasiboek publikoarentzat itxitako biltegi edo gordailuak euki ahal izango dituzte. Aipatu biltegi edo gordailuen azalera ez da konputatuko apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemailearen II. eranskinean jasotako jarraipideko 14gn. erregelako 1. ataleko f) letran xedatutakoaren ondorioetarako.

5. erregela. Ihardueren burutokia.

Zerga honi dagokionez, abeltzantza lokabeko iharduerak ez dira lokal jakin batetan burutzen. Horren ondorioz, aipatu ihardueren burutokia ustiategiak kokatuta dauden udal mugartea izango da.

Honi dagokionez, udal mugartean kokatu eta titular berak aipatu iharduera burutzen dueneko ondasun higiezin eta instalazio guztiak hartuko dira abeltzantza lokabeko ustiategizat.

6. erregela. Abeltzantza lokabea burutzen deneko ustiategien inguruan.

Abeltzantza lokabea burutzen deneko ustiategiak osatzen dituzten ondasun higiezin eta instalazioak ez dira lokalizat hartuko, apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemailearen II. eranskinean jasotako jarraipideko 6gn. erregela eta baterakoetan xedatutakoari dagokionez. Era berean ez dira halakotzat hartuko honako jarraipide honetako 4gn. erregelako 2. ataleko hirugarren lerroaldean aipatutako biltegi eta gordailuak.

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren ondorioz, abeltzantza lokabereen burutzapenari dagozkion kuotak kalkulatzeko, ez da aplikatuko apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemailearen II.

eranskinean jasotako jarraipideko 14gn.1.f) erregelari araupepetutako tributu elementua, azalerarena alegia, eta aipatu kuoten gainean ere ez da aplikatuko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Araueko 11. artikuluan aurrikusitako indizea.

7. erregela. Kuoten erregimena.

1. Tarifetan jasotako abeltzantza lokabeko iharduerei dagozkien kuota guztiak udalen gutxienezko kuotak izango dira, eta apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemailearen II. eranskinean jasotako jarraipideko 10gn. erregelari xedatutakoa aplikatuko zaie.
2. Abelburuen kopuruari buruzko tributu elementua, ustiategiak urte batetan zehar aldi berean ditueni doakiela ulertuko da, epealdi horren barruan gertatzen diren ekoizpenzikloen ondorioz eta elkarren segidan ustiapenaren xede diren abelburuen kopurua salbuetsita.
3. Tributu elementuen %20a baino handiagoak ez diren gorabeherak ez dute aldaraziko ordaindu diren kuoten zenbatekoa. Aipatu gorabeherak adierazitako portzentaia baino handiagoak direnean, gorabeherok aldakuntzat hartuko dira ekainaren 30eko 6/1989 Foru Araueko 13.2. artikuluko bigarren lerroaldean xedatutakoaren ondorioetarako; dena dela, aipatutako aldakuntzok bost urterik behin jakin erazi beharko dira, zergadunek, kasuan kasu, ekitaldi bakoitzerako euren borondatez egiten dituzten alta edo baja adierazpenen kalterik gabe.
4. Abeltzantzako ustiategietan epai debeku, sute, uholde, amiltze, edo instalazioetako ekipoetako matxura larririk gertatzen denean, baita izurri edo epizootia kasuetan ere, interesatuek horren berri emango diote zergaren administrazio kudeatzaileari, apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemailearen II. eranskinean jasotako jarraipideko 14gn. erregelako 4. zenbakian aurrikusitako ondorioetarako.